

# BAS

ALMA MATER

Urriak 29, 31 Octubre - Azaroak 5, 7 Noviembre  
Sociedad Filarmónica de Bilbao

*#BilbaoUdazkena2020* 

**B**  
Bilbao

# BAS

2020 BILBAO

URRIAK 29 OCTUBRE - 19:30

In Paradiso, En voz de mujer



## LA GALANÍA

Raquel Andueza, soprano / soprano

Pablo Priero, biolina / violín

Manuel Vilas, bi ordenatako harpa / arpa de dos órdenes

Jesús Fernández Baena, tiorba / tiorba

### IN PARADISO, EMAKUMEAREN AHOTSEAN IN PARADISO, EN VOZ DE MUJER

XVII. mendeko Italiako eliz musika morala  
Música sacra y moral italiana del siglo XVII

Anónimo (siglo XVII)

Vana bergamasca

Francesca Caccini (1587 – 1640)

O che nuovo stupor

Anónimo (siglo XVII)

Madre non mi far monaca

Anónimo (siglo XVII)

Chacona

Anónimo (siglo XVII)

Stava in rozza cappanella

Claudio Monteverdi (1567 - 1643)

Lamento della Maddalena

Anónimo (siglo XVII)

Follia del mondo

Anónimo (siglo XVII)

Spagnoletto disonorato

Cristoforo Caresana (ca. 1640 - 1709)

Dormi, o ninno

Anónimo (siglo XVII)

Pasacalles

Anónimo (siglo XVII)

Dormi, deh, dormi

Benedetto Ferrari (1603/4-1681)

Cantata spirituale

# BAS

2020 BILBAO

URRIAK 29 OCTUBRE - 19:30

In Paradiso, En voz de mujer



## OHARRAK EGITARAUARI / NOTAS AL PROGRAMA

Programa honetan biltzen da XVII. mendeko Italiako musika erlijioso eta moral ederrena. Hamar gai oso ezberdin, oso modu ezberdinean tratatuak eta emakume ahotsez abestuak: moja izan nahi ez duen neskatxatik hasi, eta Jesukristoren heriotzaren aurrean oso modu profanoan urratzen den Maria Magdalena bihurtutako Arianna batenganaino. Eta hori guztia apaintzeko, bertutetsu ez izatearen arriskuez ohartarazten gaituzten hiru kantu moral; Ama Birjinak Jesus haurra lokartzeko abesten dituen bi sehaska-kantu, eta beste obra biribil batzuk, hala nola Tarquinio Merularen sehaska-kantu bisionarioa edo Benedetto Ferrariren *Cantata Spirituale*. Pasioa, samurtasuna, desira, absentsia, urradura, itxaropena... dena kontatua eta kantatua musika hitzaren zerbitzura jarriz kasik haren morroia egiteraino, eta, dudarik gabe, modu iraultzaile batean bere garairako. Barrokoaren egunsentia da, musikaren historiako proposamen ausart eta berritzaileenetako bat ari da hedatzen Claudio Monteverdiren Italian. Lerro biziak, melodiaren eta baxuaren arteko tentsioa, eta betiere *seconda pratica* printzipioen azpian entzulea hunkitu nahi duen antolamendu erretorikoa. Jesukristoren bizitzako bi emakume garrantzitsuenak elkartzen dira kontzertu honetan, pasioa hartuz lanaren irazkitzat benetako maitasun-elkarrizketa bat osatzeko: musika egoera puruan.

Este programa es el más íntimo que presentan y recopila la más bella música religiosa y moral de la Italia del siglo XVII. Diez temas con historias muy diferentes, con un abordaje muy distinto, cantados en boca de mujer: desde una niña que no quiere ser monja a una Arianna convertida en María Magdalena que se desgarró, de manera muy profana, ante la muerte de Jesucristo; todo aderezado por tres canciones morales que nos alertan de los peligros de no ser virtuoso, dos canciones de cuna que canta la Virgen María para dormir al niño Jesús, y otras obras rotundas como la nana visionaria de Tarquinio Merula o la *Cantata Spirituale* de Benedetto Ferrari. Pasión, ternura, anhelo, ausencia, desgarró, esperanza... todo contado y cantado con una música que se subordina a la palabra de un modo casi servil y, desde luego, revolucionario en su época. Es el albor del barroco, una de las propuestas más audaces e innovadoras de la historia de la música que empieza a desplegarse en la Italia de Claudio Monteverdi. Líneas intensas, tensión entre melodía y bajo y una disposición retórica que busca conmover al oyente, siempre bajo los principios de la *seconda pratica*. Las dos mujeres más importantes en la vida de Jesucristo se dan cita en este concierto en el que, tomando la pasión como urdimbre se desarrolla como un auténtico diálogo amoroso: música en estado puro.



# BAS

2020 BILBAO

URRIAK 29 OCTUBRE - 19:30

In Paradiso, En voz de mujer



## LA GALANÍA

Raquel Andueza eta Jesús Fernández Baenak 2011n sortua, bere helburua da XVII. eta XVIII. mendeetako musika barrokoa interpretatzea, ondo zaindutako printzipio historizista batzuetan oinarrituz eta Espainiako nahiz atzerriko musikari onenekin kolaboratuz. La Galaníako kideek munduko orkestra eta talde ospetsuenetan jotzen dute, besteak beste, hauetan: *Hespèrion XXI*, *Al Ayre Español*, *Orquesta Barroca de Sevilla*, *Private Musicke*, *Orchestra of the Age of the Enlightenment*, *L'Arpeggiata*, eta abar.

2011ko urtarrilean atera zen argitara beren lehen diskoa, *Yo soy la locura*, bere zigilu diskografikoarentzat *-Anima e Corpo-* grabatua eta merkaturatu zenetik kritika bikainak eta salmenta onak izan dituen. Horrezaz gain, aho batez emana zaio Musika Klasikoko Jaialdien Espainiako Elkartearen "Festclásica" Saria. Haren ostean argitara eman ditu *Alma Mia*, *Pegaso*, *Yo soy la locura 2* eta *Miracolo d'Amore* diskoak, kritika bikainak jaso dituztenak eta prentsaren zenbait sari. 2019ko udazkenean kaleratu zuen bere azken lana: *El Baile Perdido*.

Fundada en el año 2011 por Raquel Andueza y Jesús Fernández Baena, su finalidad es interpretar música barroca, del siglo XVII como del XVIII, en base a unos cuidados principios historicistas y apostando por colaborar con los mejores músicos tanto españoles como de otras nacionalidades. Sus miembros forman parte de orquestas y grupos prestigiosos a nivel mundial, como *Hespèrion XXI*, *Al Ayre Español*, *Orquesta Barroca de Sevilla*, *Private Musicke*, *Orchestra of the Age of the Enlightenment*, *L'Arpeggiata*, etc.

En enero de 2011 salió a la luz su primer proyecto discográfico, *Yo soy la locura*, para su propio sello discográfico, *Anima e Corpo*, álbum que desde su salida al mercado ha sido un éxito de crítica y ventas, recibiendo de manera unánime el premio Festclásica, otorgado por la Asociación Española de Festivales de Música Clásica. Sus posteriores trabajos discográficos, *Alma Mia*, *Pegaso*, *Yo soy la locura 2* y *Miracolo d'Amore*, asimismo, están obteniendo las mejores críticas y premios de la prensa. En otoño de 2019 salió a la calle su último disco, *El Baile Perdido*.

# BAS

2020 BILBAO

URRIAK 29 OCTUBRE - 19:30

In Paradiso, En voz de mujer



## RAQUEL ANDUEZA

SOPRANO / SOPRANO

Iruñean jaioa, sei urterekin hasi zen musika ikasten. Nafarroako Gobernuaren eta Londreseko Udalaren bekak lortu ostean, Londreseko *Guildhall Shool of Music and Drama* eskolan jarraitu zuen ikasten. Eskola horretantxe eskuratu zuen *Bachelor of Music* titulua ohorezko aipamenarekin, eta *School Singing Prize* saria jaso zuen. Geroxeago ezagutu zuen Richar Levitt maisua, bere erreferente izan dena, harik eta Lisa Paglin eta Marianna Brilla bere ahots-prestatzaileak bihurtu diren arte.

Hainbat talderekin kolaboratu du, besteak beste hauekin: *La Colombina*, *L'Arpeggiata*, *la Orquesta Barroca de Sevilla*, *Gli Incogniti*, *La Tempestad*, *Al Ayre Español*, *El Concierto Español* eta *Private Musicke*. Jesús Fernández Baena tiorba-jolearekin batera, 2011n *La Galanía* taldea sortu zuen, zeinak Antzinako Musikako Espainiako Taldeen Elkartearen Talde Barroko Onenaren Saria jaso baitzuen. Urte horretan bertan sortu zuen bere zigilu diskografikoa: *Anima e Corpo*.

Bakarleri aritzen da mundu osoko jaialdi eta auditorio garrantzitsuetan, eta 2012an debutatu zuen New Yorkeko *Carnegie Hall*-en eta Londresko *Proms*-etan. William Christie, Fabio Biondi, Emilio Moreno eta Pablo Heras-Casado bezalako zuzendarien aginduetara aritu da. Film luze, labur eta telesailtako soinu bandetan ere kolaboratzen du eta *Warner Classics*, *Virgin Classics* eta *Glossa* bezalako diskoetxeentzat grabatu du.

Nacida en Pamplona, inició su formación musical a los seis años. Posteriormente, becada por el Gobierno de Navarra y el Ayuntamiento de Londres, amplió estudios en la *Guildhall Shool of Music and Drama* de Londres, donde obtuvo el *Bachelor of Music* con mención honorífica y recibió el premio *School Singing Prize*. Poco mas tarde conoció al maestro Richard Levitt, quien ha sido su referente hasta que Lisa Paglin y Marianna Brilla se han convertido en sus preparadoras vocales.

Ha colaborado con formaciones como *La Colombina*, *L'Arpeggiata*, *la Orquesta Barroca de Sevilla*, *Gli Incogniti*, *La Tempestad*, *Al Ayre Español*, *El Concierto Español* o *Private Musicke*, entre otros. En 2011 fundó, junto al tiorbista Jesús Fernández Baena, el grupo *La Galanía*, que fue galardonado como Mejor Grupo Barroco por la Asociación de Grupos Españoles de Música Antigua. El mismo año creó su propio sello discográfico, *Anima e Corpo*.

Raquel Andueza actúa como solista en los principales festivales y auditorios de todo el mundo y en 2012 hizo su debut en el neoyorquino *Carnegie Hall* y en los *Proms* londinenses. También ha sido dirigida por directores como William Christie, Fabio Biondi, Emilio Moreno o Pablo Heras-Casado, entre otros. Asimismo, colabora en bandas sonoras de películas, cortometrajes y series de televisión, y ha realizado grabaciones para sellos discográficos como *Warner Classics*, *Virgin Classics* o *Glossa*.



# BAS

2020 BILBAO

URRIAK 31 OCTUBRE - 19:30

Antonio Caldara y el violoncello



## LA RITIRATA

Eugenia Boix sopranoa/soprano

Luciana Mancini mezzosopranoa/mezzosoprano

Tamar Lalo, flauta

Josep Maria Martí, guitarra barroca y tiorba

Ismael Campanero, violone

Ignacio Prego, clave

Daniel Oyarzabal, órgano positivo

Josepxu Obregón biolontxelo eta zuzendaritza artistikoa / violonchelo y dirección artística

---

## ANTONIO CALDARA Y EL VIOLONCELLO

Antonio Caldara [1670-1736]

Sinfonia à violoncello solo, in D major (Österreichische Nationalbibliothek, Viena)

*Adagio - Allegro - Grave - Presto*

“Vicino a un rivoletto” (1729)

*Cantata (Royal College of Music Library, Londres)*

*Recitativo: “Vicino a un rivoletto”*

*Aria: “Zeffiretto amorosetto” (Andante)*

*Recitativo: “Ma, oh Ciel!”*

*Aria: “Aimè, sento il mio core” (Larghetto)*

“Pompe Inutili” (Österreichischen Nationalbibliothek, Viena)

*(Aria del oratorio “Maddalena ai piedi di Cristo”)*

“Soffriró pene e tormenti” (Larghetto)

“Con leggera navicella” (Allegro)

*(del oratorio “Santa Ferma”)*

*(Österreichischen Nationalbibliothek, Viena)*

“Porgete per pietà” (1729)

*Cantata (Royal College of Music Library, Londres)*

*Recitativo: “Porgete per pietà”*

*Aria: “Amor quando sarà” (Larghetto)*

*Recitativo: “Quanti sospiri e quanti”*

*Aria: “T’amai non niego è ver” (Allegro)*

# BAS

2020 BILBAO

URRIAK 31 OCTUBRE - 19:30

Antonio Caldara y el violoncello



## OHARRAK EGITARAUARI / NOTAS AL PROGRAMA

Antonio Caldara veneziarraren obran biolontxeloak leku pribilegiatua du, Caldara punta-puntako biolontxelo-jolea izan baitzen. Horregatik, nola 2020an bere jaiotzaren 350. urteurrena ospatzen den eta, arrazoi gehiagorekin, Espainian bizi izandako konpositore bat izanik, La Ritirata-k *Caldara and the cello* disko berria aurkezten du, protagonista duela Josetxu Obregónen biolontxelo. Grabazio horretako pieza batzuk zuzenean erakutsi nahirik prestatu da programa hau, musika sakratua ardatz hartuta eta elkarren kontrastean jarriz erreperitorio erlijioso eta profanoa.

Musika erlijiosoan oratorioek ohorezko lekua hartzen dute beren kalitateagatik. Hiru arotan sailkatu ohi dira, eta kontzertu honetan islatuta daude hiru aro horietako lehen biak: aro veneziarra (1707ra arte) eta aro erromatarra (1708tik 1715era bitartean). Lehen aroari dagokio *Maddalena ai Pi di Cristo* (c.1698), 6 ahotsetan, bi zatitan eta Lodovico Forni-ren libretoarekin, honen eskuizkribua Vienako Liburutegi Nazionalean gordetzen delarik. Han aurkitzen da baita ere bigarren aroari dagokion oratorioa, *Santa Ferma* (1713), bost ahotsetarako pieza bat Erromako Gaetani jauregian estreinatua zena.

Musika profanoari dagokionez, Londresko *Royal College of Music*-eko liburutegian gordetzen den *Duo decim cantate con istromenti* (1729) izeneko eskuizkributik hartuak dira entzungo diren bi ganbera-kantatak: *Vicino a un rivoletto*, zeinaren arian txelo solistak sarrera hunkigarri bat egiten duen, etengabe lagunduz ahot-sari, eta *Porgete per pietà*, zeinetan txirula eta txelo benetako norgehiagoka batean sartzen diren elkarrekin. Instrumentuen atalean, "Sinfonia à violoncello solo"ren eskuizkribua eskainiko da.

En la obra del veneciano Antonio Caldara, el violonchelo ocupa un lugar privilegiado, ya que su autor fue un eximio violonchelista. Por ello, dado que en el año 2020 se celebra el 350 aniversario de su nacimiento y máxime al tratarse de un compositor que residió en España, La Ritirata, presenta su nuevo disco *Caldara and the cello*, con el violonchelo de Josetxu Obregón como protagonista. Y para mostrar en directo parte de las piezas contenidas en esa grabación, se ha elaborado este programa centrado en la música sacra, que pone en contraste el repertorio religioso y el profano.

En la música religiosa ocupan un lugar preeminente por su calidad los oratorios, que se clasifican en 3 períodos, representados los 2 primeros en este concierto: veneciano (hasta 1707) y romano (1708 a 1715). Al primero de ellos pertenece *Maddalena ai piedi di Cristo* (c.1698), a 6 voces en 2 partes con libreto de Lodovico Forni, cuyo manuscrito se guarda en la Biblioteca Nacional de Viena. Allí se encuentra también el oratorio a 5 voces del segundo período, *Santa Ferma* (1713), estrenado en el Palazzo Gaetani de Roma. Respecto a la música profana, del volumen manuscrito *Duo decim cantate con istromenti* (1729), que se conserva en la biblioteca del Royal College of Music de Londres, proceden las 2 cantatas de cámara: *Vicino a un rivoletto*, en cuya aria el cello solista despliega una emotiva introducción y acompaña siempre a la voz; y *Porgete per pietà*, donde la flauta y el cello se entregan a un verdadero duelo interpretativo.

En el apartado instrumental, el manuscrito de la "Sinfonia à violoncello solo".



# BAS

2020 BILBAO

URRIAK 31 OCTUBRE - 19:30

Antonio Caldara y el violoncello



## LA RITIRATA

Edozein ikuspegi musikal izan daiteke baliozkoa, baina baldin erabiltzen diren instrumentuak eta eurak interpretatzeko modua bat badatoz konposatzaileak bere garaian izandako bizipenekin, puzzlearen pieza guztiak bere tokira doaz, sinergia ukaezin batek eramanda. Printzipio hori oinarritzat hartuta sortu zuen Josetxu Obregón biolontxelo-jole bilbotarrak La Ritirata taldea. La Ritiratak interpretazio historikoak egiten ditu barrokoaren, klasizismoaren eta erromantizismoaren lehen garaiko erreperitorioak berriz deskubritzeko, hasi biolontxelo agertu zen garaitik eta erromantizismoaren amaierara arte, non instrumentuaren interpretazio historikoaren eta modernoaren arteko muga estutu baitzen. La Ritirata taldeak “La Musica Notturna delle strade di Madrid” kintetoaren azken mugimenduari zor dio izena, Luigi Boccherini biolontxelo-jole eta konposatzailearen omenez.

2018ko martxoan Madrileko Komunitateak 2017ko Kultura Saria eman zion musika klasikoaren kategorian, horrela aitortzeko Josetxu Obregónek antzinako musikari buruz egin duen ikerketa- eta hedapen-lana azken hamarkada honetan. La Ritiratak 230etik gora kontzertu eman ditu 4 kontinenteetako 22 herrialdetan.

Toda visión musical puede ser potencialmente válida, pero cuando los instrumentos utilizados y su manera de interpretarlos se corresponden con las vivencias del compositor en su época, de alguna manera las piezas del puzzle encajan creando una sinergia indiscutible. Partiendo de este principio, el violonchelista bilbaíno Josetxu Obregón crea La Ritirata, una formación dedicada a la interpretación histórica con la intención de redescubrir repertorios del Barroco, Clasicismo y primer Romanticismo, desde la aparición del violoncello hasta que la línea entre la interpretación histórica y moderna del mismo se estrecha al terminar el Romanticismo. La Ritirata toma su nombre del último movimiento del quinteto “La Musica Notturna delle strade di Madrid” en honor al violonchelista y compositor Luigi Boccherini.

En marzo de 2018, La Ritirata fue galardonada con el Premio de Cultura de la Comunidad de Madrid de 2017 en la categoría de música clásica, que premia la labor de investigación y difusión de música antigua que ha realizado Josetxu Obregón en esta década que ha llevado a La Ritirata a ofrecer más de 230 conciertos en 22 países de 4 continentes.



# BAS

2020 BILBAO

URRIAK 31 OCTUBRE - 19:30

Antonio Caldara y el violoncello



## JOSETXU OBREGÓN

BIOLONTXELOA ETA ZUZENDARITZA / VIOLONCELLO Y DIRECCIÓN

La Ritirata taldearen zuzendari eta sortzailea, Madrilgo Goi Mailako Errege Musika Eskolako irakaslea, 13 sari baino gehiago irabazi ditu nazio mailako zein nazioarteko lehiaketetan. Bilbon jaio zen eta biolontxelo, ganbera musika eta orkestra zuzendaritzako goi mailako eta graduondoko ikasketak egin zituen Espainian, Alemanian eta Holandan. Holandan ikasi zuen biolontxelo barrokoa Hagako Koninklijk Conservatorium-en. Kontzertu ugari eman ditu Europako 18 herrialdetan, Japonian, Txinan, Israelen, Estatu Batuetan, Mexikon, Txilen, Costa Rican, Perun, Bolivian eta, besteak beste, Nikaraguan. Europako talde garrantzitsuetako kidea izan da, hala nola, Royal Concertgebouw Orchestra eta Rotterdam Philharmonic Orkest. Interpretazio historikoaren munduan, berriz, txelo-jole bakarlaria izan da l'Arpeggiata taldean, Europar Batasuneko EUBO Orkestra Barrokoan, Arte dei Suonatori eta Al Ayre Español taldeetan. Le Concert des Nations eta Orchestra of the Age of Enlightenment-eko (Ingalaterra) kide izan da, eta eszenatokia partekatu du Jordi Savall, Christina Pluhar, Fabio Bonizzoni, Enrico Onofri, Philippe Jaroussky, Lars Ulrich Mortensen, Nuria Rial, eta abarrekin. Antzinako musikatik kanpo orobat kolaboratu du, besteak beste, Krzysztof Penderecki, Plácido Domingo eta Jesús López Cobosekin.

Sebastian Klotz-en 1740ko biolontxelo original batekin jotzen du.

Director y fundador de La Ritirata, profesor del Real Conservatorio Superior de Madrid y galardonado con más de 13 premios en concursos nacionales e internacionales, Josetxu Obregón nace en Bilbao, cursa estudios superiores y de postgrado en violoncello, música de cámara y dirección de orquesta obteniendo las más brillantes calificaciones en España, Alemania y Holanda, donde estudia violoncello barroco en el Koninklijk Conservatorium de La Haya.

Ofrece numerosos conciertos en más de 18 países europeos, Japón, China, Estados Unidos, Israel, México, Chile, Costa Rica, Perú, Bolivia, Nicaragua, etc. Ha formado parte de las más importantes formaciones europeas, como Royal Concertgebouw Orchestra y Rotterdam Philharmonic Orkest y en el mundo de la interpretación histórica como cello solista de l'Arpeggiata, EUBO Orquesta Barroca de la Unión Europea, Arte dei Suonatori, Al Ayre Español y ha formado parte de Le Concert des Nations, Orchestra of the Age of Enlightenment (Inglaterra), etc. compartiendo escenario con Jordi Savall, Christina Pluhar, Fabio Bonizzoni, Enrico Onofri, Philippe Jaroussky, Lars Ulrich Mortensen, Nuria Rial, etc. Y fuera de la música antigua con Krzysztof Penderecki, Plácido Domingo y Jesús López Cobos entre otros muchos.

Toca habitualmente un violonchelo original de Sebastian Klotz de 1740.

# BAS

2020 BILBAO

AZAROAK 5 NOVIEMBRE - 19:30

Bach — Buxtehude



## VOX LUMINIS

Lionel Meunier, zuzendaritza / dirección

---

### Bach - Buxtehude

**Johann Sebastian Bach (1685-1750)**

Gottes Zeit ist die allerbeste Zeit BWV 106 (Actus Tragicus)

**Dietrich Buxtehude (1637-1707)**

Herzlich lieb habe ich dich, o Herr, BuxWV 41

**Dietrich Buxtehude (1637-1707)**

Gott Hilf mir, denn das Wasser geht mir bis in die Seele, BuxWV 34

**Johann Sebastian Bach (1685-1750)**

Christ lag in Todesbanden, BWV 4



# BAS

2020 BILBAO

AZAROAK 5 NOVIEMBRE - 19:30

Bach — Buxtehude



## OHARRAK EGITARAUARI / NOTAS AL PROGRAMA

Programa honek Bachen musika bera aztertzea ez ezik, landu zituen harreman artistikoek nola moldatu zuten ikustera ere gonbidatzen gaitu.

Dietrich Buxtehude organista eta konpositoreak (1637-1707) ideia musikal berri batzuetan sartu bide zuen Bach gaztea. Organista izan zen Lübeck-eko Marienkirche elizan, non Franz Tunder-ek hasiera eman zion *Abendmusiken* tradizioari, esan nahi baita urte liturgikoaren hasieran eta Abenduko lau igandeetan egiten ziren musika sakratuko kontzertuen tradizioari. Buxtehudek oratorio eta ahots kontzertu (kantata) andana harrigarri bat sortu zituen *Abendmusikenentzat*.

**Gott hilf mir** adibide bikaina da ikusteko nolako gaitasuna zeukan Buxtehudek Europa osoko estilo garaikideak integratzeko. Ondo ezagutzen zituen Frantziako, Italiako eta Ingalaterrako musikaren azken garapenak. **Herzlich Lieb hab ich dich, O Herr** lanak ikustera ematen digu nola ulertzen zuen Buxtehudek kontzertu korala. Melodia sinple bat harturik oinarri, mugimendu ugariko egitura musikal konplexu bat sortzen du abilezia handirekin. **Gottes Zeit ist die allerbeste Zeit (edo Actus Tragicus)** Bachek konposatutako lehen kantatetako bat da. Darabiltzan indar instrumentalak arkaizanteak dira, bakarrik baliatzen baititu *kontinua*, bi txirula gozo eta bi biola ganba, hots, heriotzaren ebokazioarekin lotutako tresna “zaharkituak”. Gozotasunez blaitutako intimitate eta meditazio giro bat sortzen daki tresna horiekin. **Christ lag in Todes Banden** lanarekin Bachek kantata koralaren gailurra jotzen du. Bachek Luteroren testuko irudi biziak marrazten ditu eta XVIII. mende hasierako teatralitatez janzten ditu XVII. mendeko formak.

Este programa nos invita no solo a explorar la propia música de Bach, sino también a apreciar cómo fue moldeada por las relaciones artísticas que cultivó.

El organista y compositor Dietrich Buxtehude (1637-1707) habría introducido al joven Bach en una serie de nuevas ideas musicales. Fue organista en la Marienkirche de Lübeck, donde Franz Tunder inició la tradición de *Abendmusiken*: una serie de conciertos de música sacra, que se celebraban al principio del año litúrgico y durante los cuatro domingos de Adviento. Buxtehude produjo una cantidad impresionante de oratorios y conciertos vocales (cantatas) a gran escala para *Abendmusiken*.

**Gott hilf mir** es un ejemplo de la capacidad de Buxtehude para integrar estilos contemporáneos de toda Europa. Estaba familiarizado con los últimos desarrollos musicales franceses, italianos e ingleses. **Herzlich Lieb hab ich dich, O Herr** demuestra la versión de Buxtehude del concierto coral. Exhibe sus capacidades para tomar una melodía simple y usarla como base para generar una estructura musical compleja de múltiples movimientos. **Gottes Zeit ist die allerbeste Zeit (o Actus Tragicus)** es una de las primeras cantatas compuestas por Bach. Las fuerzas instrumentales son arcaístas, ya que consisten, además del continuo, en solo dos flautas dulces y dos violas da gamba, instrumentos “anticuados” asociados a la evocación de la muerte. Esto recrea una atmósfera de intimidad y meditación, imbuida de dulzura. **Christ lag in Todes Banden** marca el cenit de la cantata coral. Bach dibuja las vívidas imágenes del texto de Lutero e infunde la forma del siglo XVII con la teatralidad de principios del siglo XVIII.

# BAS

2020 BILBAO

AZAROAK 5 NOVIEMBRE - 19:30

Bach — Buxtehude



## VOX LUMINIS

Vox Luminis duela 15 urte jaio zen Belgikan Lionel Meunier-en eskutik. Taldeak urtean bi disko kaleratzen ditu batez beste, eta 60 kontzertu baino gehiago ematen ditu mundu osoko agertokietan. Honela definitzen du bere burua: konbinazio aldakorreko bakarlari talde bat eta *continuo* bat, eta instrumentista gehigarriak nahiz orkestra oso bat, erreperorioaren arabera. Taldearen erreperorioa XVI. mendetik XVIII. mendera bitarteko pieza italiarrez, ingelesez eta alemaniarrez osatua dago. Taldea sortu zenetik, ospea lortu du bere kohesioagatik, tinbre bakoitzaren nortasunagatik eta ahotsen homogeneotasunagatik.

*Vox Luminis* taldeak harro esan dezake badituela eginda 17 grabazio, eta haiekin hamaika sari jaso dituela, hala nola Gramophone-en 2012ko Urteko Grabazioaren sari ospetsua, Heinrich Schützen *Musicalische Exequien* lanarengatik. 2020an, taldeak hiru grabazio berri kaleratu ditu Ricercar eta Alpha Classics zigiluekin.

2018an, BBC Music Magazine-ren 2018ko saria lortu zuen, “Koral” kategorian, *Luther et la Musique de la Réforme* diskoarekin; eta KLARAK “urteko taldea” izendatu zuen. 2019an Gramophone saria irabazi zuen abesbatzen kategorian, Buxtehude-ren *Abendmusiken* lanarekin.

Vox Luminis nació hace 15 años en Bélgica, de la mano de Lionel Meunier, bajo y fundador de la formación. Cada año, el conjunto lanza en promedio dos discos y ofrece a su audiencia más de 60 conciertos en escenarios de todo el mundo. Se define como un grupo de solistas de combinación variable y de *un continuo*, instrumentistas adicionales o una orquesta completa, según el repertorio. El repertorio es esencialmente italiano, inglés y alemán y abarca del siglo XVI al XVIII. Desde su creación, el conjunto ha destacado por su cohesión, la personalidad de cada timbre y la homogeneidad de las voces.

Vox Luminis puede presumir de 17 grabaciones en su haber, reconocidas por numerosos premios como el prestigioso Grabación del Año 2012 por Gramophone, con *Musicalische Exequien* de Heinrich Schütz. En 2020 se han lanzado 3 nuevas grabaciones con los sellos Ricercar y Alpha Classics.

En 2018 destacan el PREMIO BBC Music Magazine 2018 en la categoría “Coral”, con el disco *Luther et la Musique de la Réforme*; y KLARA los nombra “conjunto del año”. 2019 les ha hecho de nuevo ganadores del Premio Gramophone 2019 en la categoría coral por *Abendmusiken* de Buxtehude.



# BAS

2020 BILBAO

AZAROAK 5 NOVIEMBRE - 19:30

Bach — Buxtehude



## LIONEL MEUNIER

ZUZENDARITZA / DIRECCIÓN

Lionel Meunier ospetsu egin da nazioartean *Vox Luminis* taldeko zuzendari artistiko bezala. Gaztetatik piztu zitzaion musikarako zaletasuna eta Frantziako bere jaioterri Clamency-ko eskolan hasi zituen solfeo, txirula eta tronpeta ikasketak. Ikasten jarraitu zuen Namur hiriko Goi-mailako Musika eta Pedagogia Institutuan (IMEP) eta Hagako (Herbehereak) Errege Kontserbatorioan. Aldi berean, kontzertista karrerari heldu zion eta gonbitak jasotzen hasi zen talde ospetsuetako bakarlari jarduteko.

Europako talde askok deitzen diote aritu dadin prestatzaile eta irakasle, zuzendari eta lider artistiko bezala. Maisu eskolak ematen ditu *Vox Luminis* taldearekin, eta Errenazimendutik Barrokoraino doan erreperorioari buruzko hitzaldiak ere eskaintzen ditu. 2018an eskaria jaso zuen urteanitzeko misio batez arduratzeko Rennes hiriko el “Théâtre National de Bretagne” antzokian, eta une honetan hantxe dihardu jarraipena egiten X belaunaldiko musikari gazteen garapenari.

Actualmente, Lionel Meunier es reconocido internacionalmente como director artístico del conjunto Vox Luminis. Apasionado de la música desde muy temprana edad, comenzó su educación musical en su ciudad natal, Clamecy (France), con solfeo, flauta y trompeta. Lionel continuó sus estudios en el *Institut Supérieur de Musique et de Pédagogie* - IMEP (Instituto Superior de Música y Pedagogía) en Namur y en el Real Conservatorio de La Haya (los Países Bajos). Al mismo tiempo, comenzó su carrera como intérprete de conciertos y rápidamente fue muy demandado como solista en prestigiosas agrupaciones.

Lionel Meunier es también muy solicitado como formador y docente, director y líder artístico por muchos conjuntos europeos. Junto con Vox Luminis, ofrece regularmente clases magistrales y conferencias sobre el repertorio que abarca desde el final del Renacimiento hasta el Barroco. En 2018, se le pidió que se hiciera cargo de una misión plurianual en el Théâtre National de Bretagne en Rennes; allí sigue a los jóvenes músicos en desarrollo llamados Promoción X.

# BAS

2020 BILBAO

AZAROAK 7 NOVIEMBRE - 19:30

Alma Mater



## VINCENZO CAPEZZUTO GHEADA

Vincenzo Capezzuto, ahotsa / voz  
Giancarlo Bianchetti, gitarra klasikoa / guitarra clásica  
Rut Briones / Raquel Durán, ikus-entzunezkoak / audiovisuales

### ALMA MATER

Musika sakratu eta herrikoia Erdi Aroko lauteetatik Barrokoraino  
Música sacra y popular desde los laudes medievales hasta el Barroco

De "Planctus Virginis" del cod. Ven. Marciana IX (sec. XV).  
Ognun M'entenda voce sola

Tarquinio Merula Venezia (1595-1665)  
Canzonetta Spirituale Sopra La Nanna

Johann Sebastian Bach (1685-1750)  
Höchster, mache deine Güte (Aria de la Cantata, BWV 51)

Johann Sebastian Bach (1685-1750)  
Suite for lute in G Minor

Antonio Vivaldi (1678- 1741)  
De Stabat Mater RV621  
Stabat Mater  
Cuius Animam  
O Quam Tristis  
Fac Ut Ardeat

Canción tradicional de Corse  
Fai La ninna, fai La nanna

Johann Sebastian Bach (1685-1750)  
Liebt, ihr Christen, in dear Tat!  
(Aria de "Die Himmel erzählen die Ehre Gottes" BWV 76)

Egberto Gismondi (1947-)  
Bianca guitarra solo

Francesco De Geronimo (1642-1716)  
Dio vi salvi Regina (1676)

Stradella (1643-1682)  
Da chi spero aita (del oratorio *La Susanna*)

Laudario da Cortona (s. XIII)  
Voi ch'amate Lo Criatore voz sola



# BAS

2020 BILBAO

AZAROAK 7 NOVIEMBRE - 19:30

Alma Mater



## OHARRAK EGITARAUARI / NOTAS AL PROGRAMA

*Alma Mater* bi artistaren topaketatik jaio zen: Vincenzo Capezzuto, bere tinbrearen berezitasun, hedadura eta aldakortasun nabarmenagatik sailkapen guztiei itzurtzen zaien ahotsa, eta Giancarlo Bianchetti, nazioarteko eszenako gitarrista interesgarri eta birtuosenetako bat. Bakarrik ahots batek eta instrumentu batek lagunduko diote ikusleari musika landu eta herrikoiko piezen artean egingo duen bidaia espiritual honetan, zeinetan piezak elkarrekin txirikordatu eta solastatuko diren Mariaren —”Munduko ama ospetsuenaren” — arima kontatzeko.

BAS Jaialdirako beraizik sortutako ikus-entzunezko esperientzia bat, Bilbao 700–III. Millenium Fundazioak ekoitzia. Musika sakratu eta herrikoiak -Erdi Arotik hasi eta Vincenzo Capezzuto eta Giancarlo Bianchettiren barrokoraino - ibilbide bisual eta sentsitibo batean eramango gaitu, bidean erakutsiz Arte Sakratuaren historian garrantzitsuak izan diren Birjina eta Santuen irudiak, espiritualtasunarekin zerikusia duten elementu naturalak eta katedraletako beirateek gogorarazten dizkiguten animazio koloretsuak. Gheada estudioko bideo-artistek sortutako eszenaratze original batean troxatutako zuzeneko musika.

*Alma Mater* nace del encuentro de dos artistas: Vincenzo Capezzuto, una voz que escapa a cualquier tipo de clasificación debido a la particularidad de su timbre, la extensión y la marcada versatilidad, y Giancarlo Bianchetti, uno entre los más interesantes y virtuosos guitarristas de la escena internacional. Solo una voz y un instrumento acompañarán al espectador en este viaje espiritual entre piezas de música culta y popular que se mezclan entre ellas y dialogan para contar el alma de María, “la madre más famosa del mundo”.

Una experiencia visual y sonora creada ad hoc para el Festival BAS, y producida por la Fundación Bilbao 700 – III Millenium Fundazioa. La música Sacra y Popular desde la Edad Media hasta el barroco de Vincenzo Capezzuto y Giancarlo Bianchetti nos guían en un recorrido visual y sensitivo que entrelaza figuras de Vírgenes y Santas relevantes en la historia del Arte Sacro, elementos naturales relacionados con la espiritualidad y animaciones coloristas que nos evocan las vidrieras de las catedrales. Música en directo acompañada de una original puesta en escena creada por las vídeo artistas Gheada.

# BAS

2020 BILBAO

AZAROAK 7 NOVIEMBRE - 19:30

Alma Mater



## VINCENZO CAPEZZUTO

ABESLARI ETA DANTZARIA / CANTANTE Y BAILARÍN

Vincenzo Capezzutok Napoliko *Teatro San Carlo*-n hasi zituen bere ikasketa artistikoak dantzari bezala; laster bihurtu zen lehen dantzari eta hasi zen lanean nazioarteko konpainiekin, hala nola Napoliko *Teatro San Carlo*, *English National Ballet*, Julio Boccaren *Ballet Argentino* eta Mauro Bigonzettiren *Aterballetto*. XIX. eta XX. mendeetako koreografo garrantzitsuenen baletak interpretatu ditu. Entzute handiko sari eta aitortzak jaso ditu, hala nola *Positano-Leonide Massine* saria eta *TOYP* saria artea munduan zabaltzeagatik. Gonbit ugari hartzen ditu nazioarteko galetan dantzatzeko.

Aldi berean, abeslari bakarlarari karrerari ekin zion elkarlanean arituz Christina Pluhar-ek zuzendutako *L'Arpeggiata* taldearekin, zeinarekin bost disko grabatu zituen *Virgin Classics/Erato* diskoetxearentzat, *Ensemble Accordone* eta EUBOrentzat (European Union Baroque Orchestra). M. Pavel Vernikov-en gonbita hartu du J.S. Bach, F. Schubert eta A. Vivaldiren ariak abesteko nazioarteko bakarlariz osatutako orkestra batekin. 2020ko otsailean, *Capella Cracoviensis*ek taldeak Krakoviara gonbidatu zuen Claudio Monteverdi-ren *Il Ballo delle Ingrate* baleteko *Venere*-ren papera interpreta zezan bertsio eszenikoan.

Vincenzo Capezzuto abeslari bakarlaria izan da kontzertu-areto garrantzitsuetan, hala nola hauetan: New Yorkeko *Carnegie Hall*, Londresko *Wigmore Hall* eta Los Angelesko *Walt Disney Concert Hall*. Claudio Borgianni-rekin batera 2011n sortu zuen *Soqquadro Italiano* taldea une honetan nazioarteko musika eszenako talde berritzaileenetako bat da.

Vincenzo Capezzuto comenzó sus estudios artísticos como bailarín en el *Teatro San Carlo* de Nápoles, convirtiéndose pronto en el primer bailarín y actuando con compañías internacionales, destacando el *Teatro San Carlo de Nápoles*, el *English National Ballet*, el *Ballet Argentino* de Julio Bocca y el *Aterballetto* de Mauro Bigonzetti. En el transcurso de su carrera ha interpretado los ballets de los coreógrafos más importantes de los siglos XIX y XX. Ha sido galardonado con prestigiosos premios y reconocimientos, como el premio *Positano - Leonide Massine* y el premio *TOYP* por la difusión del arte en el mundo, y es invitado a bailar en numerosas galas internacionales.

Al mismo tiempo, continuó su carrera como cantante solista colaborando con *L'Arpeggiata*, dirigido por Christina Pluhar, con quien grabó 5 álbumes para el sello *Virgin Classics/Erato*, el *ensemble Accordone* y la *EUBO* (European Union Baroque Orchestra). Ha sido invitado por M. Pavel Vernikov para cantar arias de J.S. Bach, F. Schubert y A. Vivaldi con una orquesta de solistas internacionales. En febrero de 2020 fue invitado por *Capella Cracoviensis* para interpretar el papel de *Venere* en *Il Ballo delle Ingrate* de Claudio Monteverdi, en versión escénica en Cracovia.

Vincenzo Capezzuto ha actuado como cantante solista en importantes instituciones de conciertos como el *Carnegie Hall* de Nueva York, el *Wigmore Hall* de Londres, o el *Walt Disney Concert Hall* de Los Ángeles, entre tantos otros. En 2011 fundó junto con Claudio Borgianni el conjunto *Soqquadro Italiano*, actualmente uno de los conjuntos mas innovadores de la escena musical internacional.



# BAS

2020 BILBAO

AZAROAK 7 NOVIEMBRE - 19:30

Alma Mater



## GIANCARLO BIANCHETTI

GITARRA KLASIKOA / GUITARRA CLÁSICA

Giancarlo Bianchetti-k 1979an hasi zituen musika ikasketak Italiako Molinella herriko *A. Banchieri* eskolan. 1985ean Ferrarako *G. Frescobaldi* kontserbatorioan sartu zen, eta 1994an ohorez graduatu zen Leonardo De Angelis maisuarekin. 1986tik 1990era bitartean, jazz gitarra eta harmonia funtzionala ikasi zituen Antonio Cavicchi maisuarekin. Parte hartu du, halaber, Jim Hall, Barney Kessel, Pat Martino, Elvin Jones, Barry Harris, Toninho Horta edo Guingak zuzendutako nazioarteko ikastaroetan.

1988tik gaurdaino kontzertu-jarduera trinkoa garatu du Estatuako eta nazioarteko hainbat musika jaialditan, lagun izan dituela puntako artistak, hala nola Steve Grossman, Tony Scott, Carlo Atti eta Piero Odorici, besteak beste. Ohargarriak dira 1995etik 2004ra bitartean Vinicio Caposselarekin eta 2010etik 2015era bitartean Gianmaria Testarekin egin dituen lanak. 50etik gora kolaborazio diskografiko ditu, eta grabazio propio bat, *Appunti Mozurk* (2013).

Giancarlo Bianchetti comenzó su educación musical en la escuela A. Banchieri en Molinella, Italia, en 1979. En 1985 ingresó en el *Conservatorio G. Frescobaldi* de Ferrara donde se graduó con honores con el Maestro Leonardo De Angelis en 1994. De 1986 a 1990 estudió guitarra de jazz y armonía funcional con el maestro Antonio Cavicchi. También ha participado en cursos internacionales dirigidos por Jim Hall, Barney Kessel, Pat Martino, Elvin Jones, Barry Harris, Toninho Horta, o Guinga.

Desde 1988 hasta hoy ha llevado a cabo una intensa actividad concertística que lo ha llevado a actuar en varios festivales de música nacionales e internacionales con artistas notables como Steve Grossman, Tony Scott, Carlo Atti o Piero Odorici, entre otros. Cabe destacar las colaboraciones con Vinicio Capossela, de 1995 a 2004, y con Gianmaria Testa, de 2010 a 2015. Tiene más de 50 colaboraciones discográficas y una grabación propia, *Appunti Mozurk*, nacida en 2013.

# BAS

2020 BILBAO

AZAROAK 7 NOVIEMBRE - 19:30

Alma Mater



## GHEADA

*Gheada* Bilbon kokatutako ikus-entzunezko estudio bat da, entretenimendu murgiltzailean, arte bisualetan eta eduki originalen sorkuntzan espezializatua. Ikus-entzunezko munduan hamarkada bat baino gehiagoko esperientzia duten artista eta sortzaile bisualek osatzen dute. Espainian eta nazioartean hainbat arlotan egin dute lan: musika-jaialdiak, antzerkia, bideo-mappinga, artea, dokumentalak, publizitatea eta beste formatu mordo bat.

Teknikak eta estiloak konbinatzen dituzte, eta lan egiten dute animazioarekin, irudi errealarekin, zuzeneko bideoarekin eta/edo esperientzia analogiko eta ukimenezkoekin, proiektuak eskatu bezala. Horren guztiaren emaitza, istorioaren zerbitzura jartzen den estilo eklektiko eta beste inorena ez bezalako bat.

Gheada es un estudio audiovisual afincado en Bilbao especializado en entretenimiento inmersivo, artes visuales y la creación de contenidos originales. Lo componen artistas y creativas visuales con más de una década de experiencia en el mundo audiovisual. Han realizado trabajos en diversos ámbitos a nivel nacional e internacional: festivales de música, teatro, vídeo-mapping, arte, documentales, publicidad y un sinfín de formatos. Su trabajo combina técnicas y estilos, trabajan con animación, imagen real, vídeo en directo, y/o experiencias analógicas y táctiles según la demanda del proyecto. Todo ello contribuye a un estilo ecléctico y único al servicio de la historia.



2020 BILBAO

## GONBIDAPENAK INVITACIONES



## GONBIDAPENAK / INVITACIONES

Zikloa #BilbaoUdazkena2020 egitarauaren barruan dator, eta doakoa da, eta gonbidapenak eskuratzeko telefono hauetara deitu behar da 10:00etatik 18:00etara: 657595575 edo 688689000

- Urriaren 29ko eta 31ko kontzertuetarako, gonbidapenak urriaren 27an eta 28an eskatu ahal dira.
- Azaroaren 5eko eta 7ko kontzertuetarako, azaroaren 3an eta 4an egin ahal dira eskabideak.

Era berean, gogorazten da beharrezkoa dela kontzertuak hasi baino 20 minutu lehenago etortzea, eta, gainera, behin hasi eta gero, publikoari ez zaio utziko aretora sartzen. Era berean, aretotik irtenez gero, ez da utziko berriro sartzen.

El ciclo, enmarcado dentro del programa #BilbaoUdazkena2020, es gratuito, y las invitaciones se podrán solicitar llamando a los números: 657 595 575 ó 688 689 000 en horario de 10:00 a 18:00 horas:

- Para los conciertos de los días 29 y 31 de octubre se podrán solicitar las invitaciones los días 27 y 28 de octubre.
- Y para los días 5 y 7 de noviembre se podrán solicitar las entradas los días 3 y 4 de noviembre.

Asimismo, se recuerda que es necesario acudir 20 minutos antes del comienzo de los conciertos y que una vez iniciados, no se permitirá al público acceder a la sala. De igual manera, una vez que se abandona la sala no se puede entrar de nuevo.